



Eusko Jurlaritzaren  
Informatika Elkartea

Sociedad Informática  
del Gobierno Vasco



# Etika- eta jokabide-kodea

2. Bertsioa

2023eko martxokoa.

Este documento es propiedad de Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea – Sociedad Informática del Gobierno Vasco, S.A. (EJIE) y su contenido es CONFIDENCIAL. Este documento no puede ser reproducido, en su totalidad o parcialmente, ni mostrado a otras partes, ni utilizado para otros propósitos que los que han originado su entrega, sin el previo permiso escrito de EJIE. En el caso de ser entregado en virtud de un contrato, su utilización estará limitada a lo expresamente autorizado en dicho contrato. EJIE no podrá ser considerada responsable de eventuales errores u omisiones en la edición del documento.

Dokumentu hau EJIE Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartearen jabetzakoa da, eta KONFIDENTZIALA da. Dokumentu hau ezin da osorik edo zatika kopiatu, ez beste batzuei erakutsi, edo sortu zen helburuetatik at dauden bestelako helburuekin erabili, EJIEk aurretik idatzizko baimenik ematen ez badu. Kontratu baten barruan emanez gero, kontratuan berariaz baimendutako erabilera soilik izango du. EJIEk ez du erantzukizunik izango, dokumentuaren edizioan akatsak edo hutsuneak badaude.

Bertsioa Versión	Data Fecha	Aldaketen laburpena Resumen de cambios	Nork egina Elaborado por	Nork onartua Aprobado por
0	2008/10/23	0 bertsioa, Administrazio Kontseiluak 2009/02/17an onartua	Iñigo Diaz	Administrazio Kontseilua
1	2011/03/30	1...bertsioa, Administrazio Kontseiluak 2011/03/30ean onartua	Iñigo Diaz	Administrazio Kontseilua
2	2023/03/31	Dokumentua osoaren berrikusketa	Asier Sáez de Bikuña	Administrazio Kontseilua

## Edukia

<b>1</b>	<b>Sarrera</b> .....	<b>4</b>
1.1	Xedea.....	4
1.2	Hartzaileak.....	4
1.3	Etika- eta jokabide-printzipioak.....	4
<b>2</b>	<b>Integritate Batzordea</b> .....	<b>5</b>
2.1	Integritate Batzordea.....	5
2.2	Funtzioak.....	5
2.3	Funtzionamendua.....	5
<b>3</b>	<b>Interes-gatazka</b> .....	<b>6</b>
3.1	Definizioak.....	6
3.2	Jakinarazpena.....	7
3.3	Prozedura.....	7
<b>4</b>	<b>Jarduera susmagarriak</b> .....	<b>8</b>
4.1	Definizioak.....	8
4.2	Jakinarazpena.....	8
4.3	Prozedura.....	8

# 1 Sarrera

## 1.1 Xedea

Etika eta Jokabide Kode honen helburua da EJIEk bere jarduera-eremu guztietan bete behar dituen etika-eta jokabide-arauak ezartzea.

## 1.2 Hartzailleak

Etika eta Jokabide Kode honen hartzailleak EJIEko langileak gara, eta, subsidiarioki, EJIEren izenean edo harentzat lan egiten eta/edo zerbitzuak ematen dituztenak.

## 1.3 Etika- eta jokabide-printzipioak

EJIEko langileok konprometituta gaude partekatzen dugun Misiorekin eta Ikuskerarekin, baita Balioekin ere, horietan oinarritzen baikara Euskal Sektore Publikoaren Kudeaketa Teknologikoko Organo gisa agindu zaigun jarduera burutzeko, betiere aplikatu beharreko arau-esparruaren barruan.

*Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatatzak Arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legeari lotuta Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legeak* dioenarekin bat etorriz, “onestasuna, inpartzialtasuna, objektibotasuna eta esparru juridikoarekiko eta pertsona guztiekiko errespetua” izan behar dira EJIEko langileon jokabidearen oinarri etikoak. Hona, beraz, bete beharreko printzipioak:

1. **Arauak errespetatzea** (gure araudi-esparrukoak).
2. **EJIEren interesen alde lan egitea**, alde batera utzita norberaren, familiaren, korporatibismoaren, bezeroen edo printzipio horrekin talka egin dezaketan bestelako jarrerekin.
3. **Leialtasunez eta fede onez jardutea**, bai gure antolakundearekin, bai nagusi, lankide, menpeko eta gure zerbitzuak ematen dizkiegun entitateekin.
4. **Oinarrizko eskubideak eta askatasunak errespetatzea** eta era guztietako bereizkeriak saihestea, arrazoi hauengatik sor litezkeenak: jaiotza, arraza edo etnia, generoa, sexua edo orientazio sexuala, erlijioa edo sinesmenak, iritzia, desgaitasuna, adina edo bestelako egoera edo inguruabar pertsonal nahiz sozialak.
5. **Parte hartzeaz abstenitzea**, baldin eta interes pertsonalen bat badugu, eta horrek **interes-gatazka sor badezake** EJIEen gauzatzen ditugun jarduera eta ardurekin.
6. **Betebehar ekonomikorik ez hartzea**, eta pertsona nahiz entitateekiko finantza-eragiketetan, ondare-betebeharretan edo negozio juridikoetan parte ez hartzea, baldin eta horrek **interes-gatazka sor badezake** EJIEen gauzatzen ditugun jarduera eta ardurekin.
7. **Mesede-traturik ez onartzea**, ez pertsona fisikoengandik, ez entitate pribatuengandik, baldin eta horrek justifikaziorik gabeko pribilegioa edo abantaila badakar.
8. **Eraginkortasuna, ekonomia eta efizientzia zaintzea** gure jarduketa guztietan, antolakundearen helburu guztiak lortzeko.
9. **Dagozkigun atazak arretarekin betetzea**, baita agindutakoak ere, eta, hala dagokienean, epe barruan ebaztea gure eskumeneko jarduerak.
10. **Sekretupean gordetzea** sailkatuta dauden gaiak edo lege zabalkundeak debekatuta dutenak, eta behar besteko zuhurtasunez jokatzeko gure kargua dela-eta dakizkigun gaiei buruz. Beraz, eskuratzen dugun informazio hori ez dugu erabiliko, ez gure mesederako, ez hirugarren batzuen erako, ezta EJIEren kalterako ere.

## 2 Integritate Batzordea

### 2.1 Integritate Batzordea

EJIEren Integritate Batzordea da kode hau aplikatzen dela bermatzeko organo gorena, eta honela dago osatuta:

1. EJIEko Administrazio Kontseiluko lehendakaria, batzordeko lehendakari gisa.
2. EJIEko Administrazio Kontseiluko lehendakariordea.
3. EJIEko zuzendari nagusia.
4. EJIEko barne-kontrolako arduraduna, batzordeko idazkari gisa.

### 2.2 Funtzioak

Honako hauek dira Integritate Batzordearen funtzioak:

1. EJIEko langileek kode honen inguruan egiten dituzten galderei erantzutea.
2. Interes-gatazkei buruz aurkezten diren jakinarazpenei erantzutea.
3. Ez-betetzea ekar dezaketen jarduera susmagarriei buruzko jakinarazpenei erantzutea.
4. Printzipio etikoak betetzen direla ziurtatzeko beharrezkoak diren ekintzak eta neurriak gauzatzea.
5. Administrazio Kontseiluari Betetze-mailaren Gainbegiraketari buruzko Urteko Txostena aurkeztea, informazio hau emateko: zer lan egin diren, zer gorabehera identifikatu diren, zer neurri zuzentzaile proposatu diren eta zer progresio izan duten neurri horiek.

### 2.3 Funtzionamendua

Integritate Batzordearen funtzionamenduak barne-arau hauei jarraituko die:

1. Gutxienez urtean behin bilduko da, eta behar den guztietan, edo EJIEren Administrazio Kontseiluak proposatuta.
2. Bilerak aurrez aurre edo telematikoki egingo dira.
3. Batzordearen Idazkaritzak egingo du ohiko deialdia, Lehendakaritzaren jarraibideen arabera.
4. Integritate Batzordea balio osoz eratuko da, gutxienez hiru kide biltzen direnean.
5. Erabakiak botoen gehiengo arrunt soilez hartuko dira, eta, berdinketa gertatuz gero, lehendakariak kalitateko botoa izango du. Integritate Batzordeak hartutako erabakiak aktetan jasoko dira, eta batzordearen Lehendakaritzak eta Idazkaritzak sinatuko dituzte.
6. Edozein erabaki hartzen den bitartean Integritate Batzordeko kideren batek interes-gatazka bat izan badezake, ez du erabakian parte hartuko.
7. Integritate Batzordeko kideek sekretupean gordeko dituzte beren eztabaidak eta erabakiak, ez dituzte zabalduko eskura dituzten informazio, datu eta txostenak, eta horiek guztiak ez dituzte beren edo hirugarrenen onurarako erabiliko; izapidetzen diren jarduera susmagarrien jakinarazpenak tratatzeko orduan, konfidentziasuna bermatuko dute, eta ustez ez-betetzereen batean sartuta dauden pertsonen eskubideak errespetatuko dituzte.
8. Jarduera susmagarriak jakinarazten dituztenek jasan ditzaketen errepresaliak direla eta, Integritate Batzordeak pertsona horiei behar besteko babesa emango die.

## 3 Interes-gatazka

### 3.1 Definizioak

*Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduak (EBren finantza-erregelamendua) 61.3 artikuluan (interes-gatazka)* ezartzen duenez, "interes-gatazka egongo da funtzioak inpartzialtasunez eta objektiboki betetzea arriskuan dagoenean arrazoi familiarrengatik, afektiboengatik, kidetasun politiko edo nazionalagatik, interes ekonomikoengatik edo interes pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako edozein arrazoiengatik".

Kontuan hartuta zer egoerek sortuko luketen interes-gatazka bat, honako hauek bereiz daitezke:

- a) **Itxurazko interes-gatazka:** enplegatu publiko edo onuradun baten interes pribatuek arriskuan jar dezaketenean haren eginkizunak edo betebeharrak objektiboki gauzatzea, baina azkenean ez dagoenean lotura identifikagarri eta indibidualik pertsonaren jokabidearen, portaeraren edo harremanen alderdi zehatzekin (edo alderdi horietan eraginik ez duenean).
- b) **Interes-gatazka potentziala:** enplegatu publiko edo onuradun batek interes pribatuak dauzkanean eta interes horiek interes-gatazka ekar lezaketenean etorkizunean erantzukizun ofizial jakin batzuk bere gain hartu beharko balitu.
- c) **Egiazko interes-gatazka:** enplegatu publiko baten eginbehar publikoaren eta interes pribatuen arteko gatazka bat adierazten du, edo gatazka bat zeinean enplegatu publikoak interes pertsonalak dauzkan eta interes horiek bidegabeki eragin dezaketenean haren eginbehar eta erantzukizun ofizialak gauzatzeko orduan. Onuradun baten kasuan, gatazka bat sortuko litzateke funtsen laguntza eskatzean hartutako betebeharren eta interes pribatuen artean, interes horiek behar ez bezala eragin baitezakete betebeharrak betetzean.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikulua (**«Abstenitzea»**) ezartzen du prozeduran esku hartetik abstenituko direla «administrazioetako agintari edo langileak, hurrengo zenbakian aipaturiko egoeretakoren batean daudenean», zehazki egoera hauetako batean:

1. Interes pertsonala izatea aztertuko den gaian edo besteren batean, baldin eta azken horren ebazpenak lehenari eragin badiezaioke; sozietate edo entitate interesdunen bateko administratzaile izatea, edo interesdunen batekin ebatzi gabeko auziren bat izatea.
2. Ezkontza-lotura edo antzeko egitatezko egoera izatea, eta ahaidetasuna izatea, laugarren gradurainoko odolkidetasunezkoa edo bigarren gradurainoko ezkontza-ahaidetasunezkoa, interesdunetako<sup>1</sup> edozeinekin, entitate edo sozietate interesdunen bateko administratzaileekin, bai eta prozeduran esku hartzen duten aholkulari, legezko ordezkari edo mandatariekin ere, edo haien bulego berekoa izatea edo haien elkartuta egotea aholkularitza, ordezkari edo mandataritzarako.
3. Aurreko apartatuan aipaturiko lagunetakoren batekin adiskidetasun mina edo ikusiezin nabarmena izatea.
4. Dagokion prozeduran aditu edo lekuko gisa parte hartua izatea.
5. Gaian zuzeneko interesa duen pertsona fisiko edo juridikoren batekin zerbitzu-harremana izatea edo pertsona horri, azken bi urteetan, zerbitzu profesionalak eskaini izana, edozein motatakoak eta edozein baldintza eta tokitan.

---

<sup>1</sup> Ez dira interesduntzat joko entitate edo sozietate interesdunetako enplegatuak baldin eta ez badira haien aholkulariak, legezko ordezkariak edo mandataria.

## 3.2 Jakinarazpena

Norbaitek baldin badaki interes-gatazka bat izan dezakeela EJI Eren kontratazio-espeditente batekin aurreko apartatuan aipatutako 5 egoeretako batean egon daitekeelako, berehala jakinaraziko dio Integritate Batzordeari, jakinarazpena jasoia izan dela egiaztatzen duen edozein bitartekoaren bidez. Ahal dela, postontzi honen bidez: [Integritatebatzordea@ejie.eus](mailto:Integritatebatzordea@ejie.eus).

## 3.3 Prozedura

Jakinarazpena jasotzean, batzordeak, jatorria egiaztatu ondoren, bere Idazkaritzaren bidez eskatuko dio eskatzaileari abstenitu dadila dena delako kontratuaren lizitazioan, adjudikazioan, jarraipenean, kontrolean eta exekuzioan, eta ez dezala esku hartu kontratuaren balorazioari eta adjudikazioari zein exekuzio-jarraipenari eta kontrolari eragiten dieten erabaki edo gaitan, eta egoeraren berri emango dio eragindako prozeduran ardura duen organoari.

Batzordeak 10 egun balioduneko gehieneko epean aztertuko du kasua, jasotzen duenetik zenbatzen hasita. Ez bada interes-gatazka **potentzialik edo egiazkorik** ikusten, ezetsi egingo da interes-gatazkaren jakinarazpena, arrazoiak emanez eta idatziz, eskatzaileak esleitutako prozedurarekin jarraitu ahal izan dezan abstenitu beharrik gabe, eta espedientea artxibatu egingo da.

## 4 Jarduera susmagarriak

### 4.1 Definizioak

Kode honen eremuan jarduera bat susmagarritzat jotzen da baldin eta 1.3 apartatuan adierazitako 10 printzipio etiko eta jokabidezkoren bat betetzen ez duelako zantzuak badaude, edo itxuraz hala ematen badu.

### 4.2 Jakinarazpena

Norbaitek baldin badaki adierazitako printzipioetako bat betetzen ez duen jarduera susmagarriren baten berri, Integritate Batzordeari jakinarazi ahal izango dio, jakinarazpena jaso izan dela egiaztatzen duen edozein bitartekoaren bidez. Ahal dela, postontzi honen bidez: [Integritatebatzordea@ejje.eus](mailto:Integritatebatzordea@ejje.eus).

Batzordeak salaketetarako kanal bat jarriko du langileen eskura, anonimatu bermatzeko aplikatzekoa den araudiaren arabera.

### 4.3 Prozedura

Integritate Batzordeak jasotako jakinarazpenak aztertuko ditu, jaso eta 10 egun balioduneko epean.

Jakinarazpenak artxibatu egingo dira baldin eta ikusten bada ez dituztela betetzen izapidetzeko behar diren gutxieneko betekizunak, agerian geratzen delako ez direla sinesgarriak, argi eta garbi ikusten delako jakinarazitako egitateak ez direla arau-hausteak edo ez dituztelako izapidetzeko gutxieneko betekizunak betetzen. Kasu horretan, jarduera susmagarrien jakinarazpena ezetsi egingo da, arrazoiak emanez eta idatziz, eta espedientea artxibatu egingo da.

Azterketa egin ondoren ikusten bada jakinarazitako jarduera susmagarriak aipatutako printzipioetako baten arau-haustea dakarrela, honako jarduketak hauek egingo dira:

1. Ikerketa bat hasiko da, eta dagozkion frogak eskatuko dira deskribatutako egitateak egiaztatzeko. Beharrezkoa izanez gero, Integritate Batzordeak ikerketa-talde bat izenda dezake, barneko edo kanpoko langileekin.
2. Ikerketa amaitu ondoren, txosten bat egin beharko da, ondo zehaztua zein diren egitateak, zein dokumentaziotan oinarritu den ikerketa, eta zein diren erabilitako prozedurak, lortutako frogak, ondorioak eta iradokitako ekintza zuzentzaileak.

Integritate Batzordeak, txostena berrikusi, eta printzipio etikoren bat urratu dela uste badu, eta arau-haustearen egilea edo egileak identifikatu ondoren, egokitza edo beharrezkotzat jotzen dituen diziplina-, zuzenketa- eta prebentzio-neurriak proposatuko dizkie EJI Eko Zuzendaritzari eta Administrazio Kontseiluari, honako hauek besteak beste:

1. Definitzea zer administrazio- edo lan-arloko zehapen dagozkion.
2. Egitateen berri ematea agintaritzaren eskudunari.
3. Hala badagokio, kasua antolakundeko pertsona guztien artean zabaltzea, antzeko egitateak prebenitzeko mekanismo gisa.
4. Prozesu edo jardueraren baten kalteberatasuna agerian geratzen denean, zuzentzeko neurriak hartzea.

Jakinarazpena egin duen pertsonari (identifikatuta egonez gero), irregulartasunen jakinarazpenaren izapidetzeari buruzko erantzuna eman beharko zaio, justifikaziorik gabeko atzerapenik gabe.